

BALIO PROPOSAMENA

Gaur egun, oso ohikoa bilakatzen ari da adineko jendea bakarrik egotea etxean, bere seme-alabak lanean dauden bitartean. Gizakiak geroz eta gehiago bizitzearen ondorioz, egoera zailak sortzen dira helduen zaintzaren inguruan... Nahiz eta adineko asko ez egon zaharren egoitzetara eramateko egoeran, argi dago bizimodu seguruan bizitzen ari direla jakin behar dugula. Bestalde, gure aburuz, gure **pastilla kaxa**, bakarrik bizi diren adindunei, beraien menpekotasunean asko lagundu dezake. Hau da, gure produktuari esker, bakarrik bizi diren eta oraindik independente diren adinekoek eta haien familienk askoz lasaiago egon ahal izango dira.

Ulgarria den bezala, zure senide helduen osasunarengatik kezkatuta bazaude, **lasaitasuna** eta **segurtasuna** bermatuko duen produktua eskaintzen dizugu. Telefono dei baten bidez ziurta diezazukegu zure senideak ondo daudela. Bideodeia konektatzean, ikusiko diezu pastilla hartzen, hartu duela baieztatzen. Hala ere, guztiz lasai ez bazaude, gure APP-ean zein pilula hartu dituen ikusteko gai izango zara urrun egon arren, pastillen jarraipena egiten baita aplikazioan.



Erabilpena edozein pertsonara egokituta dago: bideodeia konektatzeko prest dagoenean, alarma bat joko du, adineko pertsonak pastilla kaxara gerturatu dadin. Behin hor egonda, bideodeia eta kamararen bidez, bere senide batekin hitz egingo du. Pastilla kaxa mekanismo batekin dabilenez, senideak gure APP-ren bidez memento horretara dagokion pastilla konpartimendua irekiko du. Adineko pertsonak norbaitekin hitz egiteko aukera izango du, eta senideak, aldiz, adineko pertsonak pilula hartu duela baieztatuko du.

<https://pillssave.com>

Bestetik, ez dago kezkatzerik, pertsona guztien beharretara moldatzen baita. 7 ilara daukan pastilla kaxa eskaintzen dizugu, bakoitza 5 konpartimentuekin. Horrela, nahiz eta egunean zehar pastilla asko hartu behar dituen, gure produktu berritzaile eta sakonari esker, helduen bizitza erraztuko dugu.